

**2002KO URTARRILAREN 31N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BILERAKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaika

HILABETEA: Urtarrila

URTEA: Bi mila eta bia

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUA: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge

ETORRI GABEAK: Jon Berbel Aiestaran
Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Aimar Larrea Garin
Leire Lopez Zurutuza
Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTAK

2001eko abenduaren 13ko eta 21eko akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira, beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 37. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari egindako behin-behineko onespina ematea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza eta hark honela dio: "Arau Subsidiario honen aldaketarekin, garajeentzako bigarren sotoa egitea eta aldamenean toki bat uztea lortzen da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek, aho batez, ondorengo erabakia hartu dute:

"Gaia: Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari egindako zuzenketa. 37 HA: Ezkiaga auzoa. Behin-behineko onespina.

Udalbatza Osoak 2001eko azaroaren 8an, ondorengo erabaki zuen: 37 Hirigintza Arearekiko (Ezkiaga auzoa) Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari egindako zuzenketari hasierako onespina ematea.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2001eko azaroaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko azaroaren 16an eta 2001eko azaroaren 14an "Euskaldunon Egunkarian" iragarkiak argitaratuz hilabeteko epean eta epe horretan ez da inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamenduko Araudiaren 130. artikulua xedatutakoaren arabera, Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egin zaio: 37. Hirigintza Arearekiko (Ezkiaga auzoa) Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari egindako zuzenketari behin-behineko onespina ematea eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, hala badagokio, behin betiko onespina eman diezaion."

3.- BBEB. 37. HAKo Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziaren aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari eman dio hitza eta hark honela dio: "como consecuencia de lo anterior en el Plan Especial de Reforma Interior también había que modificar algunas cosas y por ello se propone la adopción del siguiente acuerdo:

“Gaia: 37. Hirigintza Areako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziaren aldaketari behin-behineko onespena ematea.

AURREKARIAK

2001eko irailaren 28ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, 37. Hirigintza Areako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziaren aldaketari hasierako onspena eman zitzaion eta espedientea jendaurrean jarri zen, 2001eko urriaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko urriaren 3ko Diario Vascon eta 2001eko irailaren 30eko Euskaldunon Egunkarian iragarkiak argitaratuz. Hamabost eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Legeria aplikagarria, xedapen hauetan jasotzen da:

- Ekainaren 23ko 2159/1978, Erret Dekretuak onartutako Plangintzako Araudiaren 139. artikulua eta testu bereko 125.a eta ondorengo artikulua.

- Etxebizitzaren arloko premiazko neurriak eta Hirigintza Plangintzako zein Kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko, ekainaren 30eko 17/1994 Legearen 6. artikulua.

- Onartzeko organoaren eskuduntzari (Udalbatza) eta quorumari (gehiengo soila) buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokaletako Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legea.

Horren ondorioz, batzorde honek aipatutako aurrekariak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

Lehenik. 37. Hirigintza Areako Barne Berrikuntzako Egitasmo Bereziaren aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Bigarren. Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, hala badagokio, behin-betiko onspena eman diezaion .”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- MOZIOA. Sexu bereko bikoteen elkartze-zeremoniari buruz “GEHITU” eta “HEGOAK” taldeek proposatutako mozioa.

Alkate jaunak, Ana Asla Gizarte-ongizateko batzordeburuari eman dio hitza eta hark honela dio: "Beasaingo Udalak izatezko bikoteen udal-erregistroa onartu zuenean eskubide-berdinketaren aldeko urrats garrantzitsua eman zuen, baina hori berdintasunaren aldeko beste neurriekin osatu beharra dago, erregistroak egun duen mugapena gaindituz, inskribapena baino ez baita, eduki zabalagoa emanez, beste urrats bat eman genezake, nahiz eta txikia izan desagertzeko denbora gehiegi irauten ari den diskriminazio baten aurka aritzeko. Urrats bat gehiago, azken finean emakume eta gizon guztion arteko gizarte sozialago eta berdinago bat eraikitzeko. Ondorioz, Beasaingo Udalarari eskatzen diogu gay eta lesbianen eskubideen aldeko konpromisoarekin bat egin dezala, aurkeztutako mozioa aho batez onartuz, horrela diskriminazioak, marjinazioak eta intolerantziak lekurik izango ez duen mundu baten aldeko apustu argia eginez.

Mozio honek hiru puntu ditu:

1.- "Izatezko bikoteen Udal Erregistroan inskribatzen diren sexu bereko bikoteek aukera izango dute, hala nahi izanez gero, beren elkartzea zeremonia baten bidez ezkontza zibilak egiteko erabiltzen diren geletan ospatzeko".

2.- "Alkateak eta zinegotziek konpromisoa hartzen dute izatezko bikoteek eska litzatekeen zeremonietan parte hartzeko, Udaletxean egiten diren ezkontza zibilentzat duten disponibilitate eta parte hartze baldintza berberekin".

3.- "Beasaingo Udalak Estatuko legegileari Kode Zibila lehenbailehen alda dezala eskatzen dio, sexu bereko pertsonak osatzen dituzten bikoteei, sexu desberdineko bikoteek dituzten baldintza berberekin ezkontzeko aukera emanez".

Une honetan, Pello Garaialde jauna sartu da batzarraldira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros (PP) jaunak: "En esta moción hay tres partes, y si se hubiera votado separadamente, quizás a las dos primera partes hubiéramos dicho que sí y a la tercera que no, pero como se va a someter a votación en su globalidad, voy a referirme sobre todo al tercer punto, es decir, a la modificación del Código Civil para permitir el matrimonio sin límites de sexo.

Desde una perspectiva doctrinal, se han mantenido tres posturas enfrentadas. Una primera tesis sostiene que el matrimonio homosexual vendrá impuesto por la Constitución y resultaría una clara discriminación prohibida por el art. 14, esto es, que por razones de orientación sexual el matrimonio sólo

fuera posible para las parejas heterosexuales, y no en cambio para los homosexuales. El art. 32 de la Constitución, exigiría la libertad de un hombre o de una mujer de casarse con cualquier otra persona independientemente de su sexo. No obstante esta postura ha sido rechazada por un auto del Tribunal Constitucional de fecha 11 de julio de 1994 que considera el "ius novendi" como un derecho referido exclusivamente a personas de sexo opuesto. Una segunda tesis sostiene que la Constitución prohíbe el matrimonio homosexual. Estos autores consideran que el art. 32,1 configura un derecho circunscrito a la pareja heterosexual, cuya extensión a la pareja homosexual atentaría contra la propia institución matrimonial que dejaría de ser reconocible como tal si perdiese su carácter heterosexual. Para esta posición doctrinal la ausencia de la expresión "entre sí" en el art. 32, resulta totalmente irrelevante. Tampoco figura en el art. 12 de la Convención de Roma, en el 23,2 del Pacto Internacional de Derechos Civiles y el Tribunal de Derechos Humanos se ha pronunciado en contra del matrimonio homosexual en dos casos que han adquirido cierta notoriedad. De modo que no permitir el matrimonio entre personas del mismo sexo no implica violación del art. 12 del Convenio de Roma. Este sector doctrinal sostiene que el matrimonio homosexual no viene impuesto por la Constitución, pero tampoco puede considerarse expresamente prohibido por ella, aun cuando el art. 32 sólo reconoce el derecho a contraer matrimonio al hombre y a la mujer, el precepto no prohíbe al legislador según esta tesis, extender el régimen de matrimonio a la pareja homosexual. Tenemos que decir por otro lado que la finalidad primordial de la proposición es posibilitar la celebración del matrimonio entre personas del mismo sexo. El matrimonio es una situación que presupone necesariamente la existencia de un hombre y una mujer. Recordar la interpretación que del art. 32 viene haciendo la Dirección General de los Registros y del Notariado, que es contundente al afirmar que la Constitución no permite el matrimonio entre personas del mismo sexo. En definitiva en todos los ordenamientos jurídicos actuales y órdenes sociales, por matrimonio se entiende que es la unión de un hombre y una mujer y tiene por tanto hasta el momento presente un carácter heterosexual al que el Código Civil y la Constitución no se refieren por que lo dan por supuesto, aunque si puede afirmarse que en tales textos se explicita tal carácter. Por todo eso vamos a votar en contra."

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): "Nik uste dut hemen planteatzen denak ez duela asmo juridikorik, baina urrats hauek behar bada, beharrezkoak izango dira legezko aldaketak izateko. Guk uste dugu ahalegin guztiak egin behar ditugula edozein pertsonen nahi duen moduan bere bizitza antolatzeko mugarik gabe. Zentzu horretan mozioa bidezkoa iruditzen zaigu eta gu erabat alde gaude."

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Lehendik Konstituzioaren aurka egoteko arrazoiak bagenituen, orain beste bat daukagu. Ados gaude. Bakarrik esan, bazela garaia horrelako planteamenduak Beasaingo Udaletxera iristeko.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Ados gaude mozioarekin”.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, Batasuna, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da, sexu bereko bikoteen elkartze-zeremoniari buruz “GEHITU” eta “HEGOAK” taldeek proposatutako mozioa.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

ERREKARTE KALEKO OBRAK

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Errekarte kaleko obrari buruz doa nire galdera. Zer da, errepidearen konponketa edo sare bat sartzeko obra?.”

Alkate jaunak: “Errekarte kalean Euskaltelek bere puntuan sarea sartutako zanga konpontzen ari da. Hori egiteko exijitu diegu, datorren astean ez bada hurrengoan, Antzizar parean berriz ere kolektorearen obrak hasi behar direnez, trafiko guztia goitik joango delako eta gutxienez bost hilabetetan trafikoa Errekarte kaletik joango delako.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Bakarrik eskatzen dut, obrak egiteko garaian planifikazio bat egon dadila, zeren eta dagoeneko herria hankaz gora daukagu”.

Alkate jaunak: “Pertsona bat kontratatu dugu obren segimendua egiteko, baina beti sortzen da arazoren bat.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Atzo azaldu zen aldizkari ofizialean, Ezkiaga auzoan 36 etxebizitza eta 106 garaje egiteko obrak kontratatzeke deialdia. 36 plazak de garaje serán vinculadas a las casas y las otras 70 serán no vinculadas. Las plicas se abrirán el 15 de febrero. El precio

máximo de adjudicación de los pisos, serían 160.000 pts/m². Son pisos de dos y tres habitaciones y la media de metros cuadrados útiles son 67,60 m². El precio del m² del garaje y del trastero son 60.000 pts. Una vez abiertas las plicas, se prevé que adjudicarán las obras en el plazo de un mes. En un mes a partir de la adjudicación tienen que tener la calificación de viviendas de protección oficial y al cabo de otro mes tienen que iniciar las obras. El plazo de ejecución es de dieciocho meses. El precio medio de una vivienda es de 10.816.000 pts., más el garaje que ronda 1.600.000 y el trastero que vale cuatrocientas y pico mil pesetas. Lo importante es que se presente algún promotor a esta licitación. Se estima que hacia mayo se pueden empezar las obras. Luego queda otra actuación conjunta entre el Gobierno y el Ayuntamiento, que es la urbanización de delante de la plaza.”

Alkate jaunak: “De las actuaciones a realizar según el convenio firmado con el Gobierno Vasco, al Ayuntamiento le queda por acometer la peatonalización de Oriako Pasealekua.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta hogeita bostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.